



# 7. Eranskina: Baimena

Gogoratu ikasleak agertzen diren irudiak, bideoak edo bestelako materialak argitaratu eta partekatu ahal izateko ezinbestekoa dela gurasoen, tutoreen edo legezko ordezkarien baimen egokiak izatea, jakitun izanda irudiak Munduko Kanpainak zabalduko dituela bere sare sozialen eta kanpainari lotutako erakundeen kanalen bidez zabalduak izango direla.

Zuen ahotsak, HAMA hedatzeari eta 4. GIHaren betetzeko borrokari zuzendutako Hezkuntzaren Aldeko Mundu Kanpainaren sare sozialetatik (Facebook, Instagram, Twitter, Flickr, web orria edo komunikabideak) zabaldu eta altxatzeko, honako honetara animatzen zaituztegu:

**Materialak eta argazkiak zuen ikastetxeetan zein zuen ikastetxeen sare sozialetan eta web gunean partekatu** eta HAMA Espainia etiketatu (behean HAMAREN kontuen lista). Horrela, HAMA Espainiatik hedapen handiago bat eta ahotsa eman ahalko diogu.

**HAMA Espainiarekin ere partekatu dezakezue**, materiala comunicacion@cme-espana.org helbidera bidaliz. Postan oinarritzko informazioa sartzeko eskatzen dizuegu:

- Ikastetxearen izena:
- Zeintzuk parte hartu duten (Gradua/taldea/gela):
- Data eta lekua (herri, udalerrri, autonomia erkidegoa):

**Garrantzitsua** hurrengo parrafoa korreoa sartzea:

“[Erakundea]k, Hezkuntzaren aldeko Munduko Kanpainaren esparruan egindako jardueren partaide den aldetik, Hezkuntzaren aldeko Munduko Kanpaina osatzen duten erakundeei lagatzen die jarduera horietan parte hartzen dutenen datu pertsonalak eta irudiak posta honen bidez trata ditzaten. Tratamenduaren helburua HAMA ezagutaraztea edo sustatzea da, bai eta parte hartzaileen irudia, ahotsa eta materialak zabaltzea, HAMA osatzen duten erakundeetako edozein komunikabide edo komunikazio-kanalen bidez. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko edo beste batzuk egiteko hurrengo posta elektronikoari zuzenduta eskura ditzakezu: [dataprotection@educo.org](mailto:dataprotection@educo.org) eta pribatutasun politika hemen kontsultatu dezakezu: <https://cme-espana.org/politica-de-privacidad/>. [Erakundea]k bermatzen du datu pertsonalak eta irudiak tratatu behar zaizkien haurren eta nerabeen guraso/tutore/legezko ordezkarien baimen egokiak dituela HAMAKo kide diren erakundeei uzteko.

Irakurri dut eta onartzen dut: \_\_\_\_\_